

# Ze barri?

2001.ko  
APIRILA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

49 zkia.

*Urratik Landetara*



**Elkarrizketa:**  
**Ruben Beitia**

**Eskoriatzarrok munduan:**  
**Leire Urzelai,**  
**injenieri bat Suitzan**



**ERREPORTAIA:**  
**ESKORIATZA TXIAPASEKIKO**  
**LOTURA ESTUTZEN**



MIRENTXU

**TABERNA**

*Kafe goxoa hartzeko*

Tfnoa.: 943 71 41 67

**TXALAPARTA**

**JATETXEA**

Tfnoa.: 943 71 50 46



**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 -bajo

Tfnoa.: 71 51 20

**TOKI ALAI**

Taberna

Tfnoa: 943 71 47 29

**KARAJILOETAN  
ESPEZIALIZATUA**

**GOLO**  
gazte moda

Tel.. 943 71 45 61

**AZKOAGA**

**ESTANKOA**

*Zure Zerbitzura*



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

**REPARACIONES LENIZ, C.B.**

Aingeru Ibiltokia, z/g.

Tfnoa.: 943 715061



**Charter**

*Eta gainera, zerbitzua etxera!*

Aranburuzabala, 3

Tel. 943 71 45 46

Ordutegia: 9etatik 13 t'erdietara  
eta 17etatik 20etara.

**Zure  
publizitatea  
hemen...**

Zure Publizitatea Ze Barri? aldizkarian ikusi nahi baduzu, gurekin kontaktuan jarri besterik ez duzu. Geuk emango dizugu behar duzun informazio eta zerbitzu guztia.

**Ze Barri? aldizkaria,**

**Intxaurtxueta 9-10, Eskoriatza.**

**Tel.:943715434**

**E-maila: axtroki@topagunea.com**



San Pedro 9, 1 behea  
20540 ESKORIATZA  
Tel. 943 71 54 34  
E-maila: axtroki@topagunea.com

### ARGITARATZAILEA:

AXTROKI  
Kultur Elkarte

### ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Garikoitz Kortazar  
Andoni Bengoa  
Lorea Agiriano  
Iñigo Biain

### KOLABORATZAILEAK:

Aitor Uribeberria  
Aitor Urrutia  
Asier Errasti  
Juanma Pagalday  
Iñaki Agiriano  
J.J. Arrieta  
Jon Errasti  
Museo Eskola  
Lourdes Martinez  
Edurne Unzueta  
Iranzu Gabilondo

### INPRIMATEGIA:

Eguzkigraf, Koop. Elk.

### TIRADA:

2.000 ale

### LEGE GORDAILUA:

SS - 200/99


### ISSN:

1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten  
aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



ESKORIATZA



## AITORREN HIZKUNTZA ZAHARRA

Fraga Jauna:

Inoiz horrelako aldizkaririk irakurriko ez duzun arren, ezta Galizian ere, ulertzekoa baita ez garela inoiz ABC-k duen informazio objektiboaren mailara iritsiko (Torrente II dixit), nahi ere ez noski, zenbait gauza erantzutea gura nieke zure azken adierazpenei. Marka da beti neuri tokatzea hauteskundeak hurbiltzen diren bakoitzean, eta zin dagizut Gran Hermano eta gure Disneilandia sirimiridun gatazkatsuaeren arteko erlazioari buruz hitz egitea pentsatzen nuela zure iritzien eztanda informatiboa aditu nuen arte gure etxeak bete, gure iritzia zuzendu eta gure jarrerak markatzen dituzten telebista katearikoren batek duen albistegi "anitz" horietariko batean. Are gehiago, dagoeneko osatua eta zuzendua nuen testua aldatu nuen zuri, edota, zoritxarrez, zu bezala uste dutenei erantzuteko asmoz.

Izan ere, azkenaldi honetan entzuten dira zenbait gauza, hala nola: gaztelera ez dela inoiz inposatua izan, edo zuk esan moduan euskarak ez duela museorako baino balio, latinean sostengatu behar izan baita gaurko egunera iristeko, eta ez omen du balio, hain zaharra izaki, egungo garai birtualerako. Presidente Jauna, zor dizudan errespetu guztiarekin, hemen, museoa sartzeko bezala eta egungo mundu birtualerako balio ez duen bakarra zeu zara. Euskarak gezia, aitzurra, gupila, ezpata, aiztoa, gaztelua, gurdia, inprenta, patata, artoa, egunkaria, tren, trenbidea, autoa, hegazkina, Internet, Posta Elektronikoa, Txat, etab.ak berez sorturik, latinetik, gaztelera, frantses, ingeles edo kasuz kasuko berezko hizkuntzatik hartuta barneratu baititu, euskararatu edo zekartzaten ahozkeraren errespetatuz. Zu, ordea, On Manuel, euskara ez bezala, ez zara aldatu, urteotan ez duzu ezer barneratu, errespetatu.

Eta hau da, hain zuzen ere, gure hizkuntza eta zu bezalakoen arteko aldea. Hau da sei mila urtetan, kalte handiak jasanda ere, garai garaizko Fraga Jaunek museoko hizkuntza

horrekin ahal izan ez izatearen arrazoa: bere malgutasuna. Mailegusi dagokienez, euskarak hartu eta eman egiten ditu. Hizkuntza orok moduan. Mailegua, hizkuntzalaritzan noski, ez da desohorea, alderantziz baizik. Gaztelera inor ez da lotsatzen restaurante, gol, futbol edo devenir esateaz, euskaraz ere ez alkate, piperra, geriza, edo patata hitzez. Animotasun semantikorik gabeko neologismo artifizial baten sorrera saihesten du ongi ekarritako mailegu batek. Ez al da hori, On Manuel, sozio-kultura unibertsalean partehartzea globalizazioaren garai hauetan? Ba horretan datza euskarak: berezko hiztegia, mailegua eta neologismoaren arteko elkartasun batean.

Eta Euskal Herriko elebiduntasun armoniosoaz ez zaitez ardura, euskaldunen artekoa (%30 inguru) oso ona baita, kalitatezkoa, zuek orain lotsarian ipini zaituzteten haragirako iragartzen zenuten "Galizia Calidade" baino askoz ere hobea. Gainontzeko % 70arena da kezkatzekoa, gaztelera hizkuntza izaki, elebiduntasun armoniosoaren premiarik ikusten ez dutenena, alegia.

On Manuel, bukatzeko, eta zure lanbideagatik zein murgilduak gauden testuinguruagatik idazki honek kutsu hori hartzea ezinbestekoa badu ere, ez luke politikoa izaterik nahi, nahiz eta badakidan horrela hartua izango dela. Dena den, esandakoak esaten ikusi zintudanean hitzetik hortzera etorri zitzaidana honako hau izan zen " Hizkuntza inoiz ez duk zaharregia hitzunak izateko, bai ordea zenbait gizon politikan aritzeko ". Has zaitez memoriak idazten.

Adeitasunez.

Aitor Urrutia



## Txiapas eta Eguneko Zentrua Apirileko Osoko Bilkuran

Hilero gertatzen den bezala, Apirileko azken Ostegunean Osoko Bilkura izan zen Eskoriatzako Udalean. Hainbat gai pasa ziren mahai gainetik, baina agian, ohiko gaietatik nahiko ezberdintzen delako bata, eta herrirako izango duen garrantzia kontutan izanda, bestea, bi gai azpimarratuko ditugu Osoko Bilkura honetatik. Alde batetik, Txiapaseko San Andres Sacamchen de los Pobres komunitatearekin egindako hitzarmena, daukagu, eta Eguneko Zentruaren lanak bestetik.

Gabon inguruan Eskoriatzako Udalean aipatu komunitateko gutun bat jaso zen nolabaiteko anaikidetze bat proposatuz, eta Apirileko Osoko Bilkuran jorratu zen gaia, eta baita aurrera atera ere. Hitzarmen honen bidez Eskoriatzak Txiapaseko komunitate honekin daukan harremanari eusteko konpromezua hartzen du, behar beharrezkoa baitute hango biztanleek atzerriko presentzia, eta batez ere laguntza.



Alderdi politikoetako ordezkariak ohiko Osoko Bilkura batean

Bigarren gaia, esan bezala, Eguneko Zentruaren etorkizunarekin lotutakoa genuke. Osoko Bilkuran onartu zenez, Eskoriatzako Erresidentziak eguneko Zentrua egiteko lokala utziko dio gutzienez 20 urtetarako Eskoriatzako Udalari, Foru Aldundiak era honetako lan bat

egiteko eskatzen duen bezala. Orain Foru Aldundiak aztertu egingo du ia proiektu hau bideragarria den, eta egoki ikusten badu, behar den dirulaguntza emango du, eta baita bere kudeaketa ekonomikoa eraman ere. Foru Aldundiko teilatuan gelditzen da, beraz, Eskoriatzako Eguneko Zentruaren pilota.

## Aitzorrotz eguna, hotza eta euritsua

Aurtengoan ere ez dio hutsik egin Eskoriatzak Aitzorrotzi. Eguraldia erabat desatsegina izan bazen ere, hainbat izan ziren urteroko ohiturari jarraiki Aitzorrotz muturreraino hurbildu zirenak. Egia esan, Aitzorrotz eguna bera Domekan izan bazen ere, bezperan Akelarrea antolatu zuten Gazte Asanbladako kideek. Domekako egitaraua txistularien goizeresiarekin hasi zen, jendea esnatu eta mendira habitzeko. 11:30etan meza izan zen, eta ondoren bazkaria. Esan bezala, eguraldia hotza izan zen, eta euritsua gainera, eta horrek eragin zuen nabarmen jendearen kopuruarengan. Dena dela, eta behin Aitzorrotzetik jaitsita,

festak Eskoriatzan bertan jarraitu zuen bertsolari eta trikitilariekin. eta nola ez, dagoeneko ohitura bilakatu den tortilen salmentarekin. Egun osoan zehar batu zen dirua Eskoriatzako Atzeratuen Taldeari eta AtxorrotzGKEari emango zaio, azken honek Hondurasen eta Costa de Marfilen dituen proiektuetara bideratua izan dadin. Helburua bikaina, baina

eguraldia ez, esan bezala. Ia datozen urteetan gehiago laguntzen duen, benetan egun esanguratsua baita Aitzorrotz-ko hau eskoriatzarrentzat.



Aurten ere eguraldiak ez du bere partetik askorik jarri



## Irakasle Eskolak 25. urteurrena ospatzen jarraitzen du

Irakasle Eskolaren 25. urteurrena dela eta, lehenago ere iragarri genizuen bezalaxe, hainbat ekitaldi izan dira eta izango dira HUHEZIren fakultatean. Alde batetik Setien eta Jaques Gaillot gotzainak izan ziren Apirilaren 5ean, estreinatu berri dugun XXI. mende honetan erlijioak duen eta izan behar duen papela berbetan. Ekitaldi harek izandako harrera benetan azpimarragarria izan zen, bai ikusentzuleen aldetik, bai eta komunikabideen aldetik ere.

Baina erlijioarekin lotutako hura arrakastatsua izan bazen, ez zen gutxiago izango Eguenean izan zena (□Ze barri?□ inprimategian zegoenez, ezin izan dugu arrakasta hori baieztatu, baina ziur gaude hala izango zela gonbidatuaren izen handia ikusita). Izan ere, Eguenean eta Egubakoitzean Federico Mayor Zaragozak beharko luke HUHEZIKo fakultatean □Etika eta Enpresa: enpresa egitasmo etiko, eta etika enpresa egitasmo□ izeneko jardunaldietan parte hartzen.

Federico Mayor Zaragoza Bartzelonan jaio zen 1934ko Urtarrilean, eta 22 urte beranduago Farmazian lizentziatu zen Madril.




Harrera bikaina izan zuten Setien eta Gaillot gotzainek Apirilaren 5ean

Bere bizitzaren zati handi bat Unibertsitateetan eman ondoren, Granadako Unibertsitateko errektoradutzatik hasi, eta 1976an UNESCOren eskuetan zegoen Goi Ikasketetarako Europarako Zentruko partaide izateraino, 1977an espainiar legebiltzarkide izan zen, eta ondorengo urteetan, UNESCOko Zuzendariorde Orokor izendatu

ondoren, Adolfo Suarezren gobernuakide izan zen, Hezkuntza eta Zientziak sailaren buru. 1987an UNESCOko zuzendari izendatuko dute, eta kargu horretan mantenduko da 12 urtez, 1999an utzi zuen arte. Orduandik Kultura eta Pakea Fundazioko lehendakaria da.

## Maiatza ondo hasteko, Gazte Astea EGASen eskutik



Hurrengo orrialdean ikusi ahal izango duzuen bezala, Maiatzak kultur egitarau oparoa ekarriko du berarekin, eta egitarau honi hasiera Eskoriatzako Gazte Asanbladak antolatutako Gazte Asteak eman zion. Maiatzaren 2an hitzaldia izan zen "Espainiako selekzioari uko egitea" izenburupean, hizlari bezala kirolari ezberdinak bildu zirelarik. Bi egun beranduago kalamua edo "kannabisa" izan zen hitzaldirako gaia, eta egun berean bi kontzertu izan ziren herriko bi tabernatan: Arto-

bixar Arranon, eta arcada Social Nairan. Hurrengo egunean, Aitzorrotz egunaren bezperan, aurreko urteetan bezalatsu akelarrea antolatu zuten Aitzorrotzen bertan, nahiz eta eguraldiak erabat bizkarra eman zien. Azkenik, Maiatzaren 8an beste hitzaldi bat antolatu zuten, oraingo honetan "Gazteak eta sexualitatea" izenburupean, eta telebistan behin baino gehiagotan ikusteko aukera izan dugun Luis elberdin sexologoa hizlari zutela. Ia aurrerantzean zer eskeintzen diguten EGASekoek.



## Eskoriatzako pilotari gazteak onenen artean kokatuta

Azken hilabete honetan Eskoriatzako pilotari gazteak jo eta ke aritu dira bi txapelketetan euren abileziak erakutsi guran. Emaizta ezberdinak lortu dituzte maila ezberdinetako bikoteek, baina orohar esan beharra dago jarduera bikaina burutu dutela eskoriatzarrok.

Alde batetik Udaberri txapelketaren azken txanpa bizi izan dugu Apirilean zehar, Gipuzkoa osoko txoko guztietako bikoteek parte hartu dutena. Hauxe da hain zuzen, eskoriatzarrentzako emaitza onenak eman dituen txapelketa, kadete mailan Axpe eta Abasolok osatutako bikotea txapelkun gelditu baitzan Intxaurrendoko Irazusta barrebna eta Circujano bikotearen aurrean, jubeniletan Abarrategi eta Errarte azpitxapelkun Lasa eta Argote oiartzuarrak gainditu ondoren, eta postu bera lortu baitzuten senior mailan Dominguez eta Errarte I.ak Elgoibarko Ansola-Balzola bikotearen aurka. Ez dago batere

gaizki hiru mailatetik txapelkun bat eta bi azpitxapelkun ateratzea.

Bigarren erronka Deba Arroko Pilota Txapelketarekin zeukaten eskoriatzarrek, eta Udaberrikoan bezain emaitza onak lortu ez badituzte ere, gutxienik oso ondo egin dutela ezin ukatu, kadeteak eta jubenilak finalerdietaraino iritsi baitziren, nahiz eta bi bikoteek azken kanporaketa hau galdu, finalera pasa ezinik gelditu zirelarik. Esan bezala, kadete mailan Axpe eta Abasolo finalerdietan erori ziren Soralezuko Txurruka eta Rodriguezen aurka, eta jubeniletan zorte bera izan zuten Abarrategi eta Errarte I.ak Etxaniz-Agirrebeina bikote eibartarraren aurka. Emaiztei begirada bat botaz gero, garbi gelditzen da pilota izan daitekeela Eskoriatzako kirol ibilbidea gorenera eramane dezakeena. Zerikusirik izango ote du gazte eskoriatzarrek kontzejupean pilotan jokatzeko duten ohiturarekin?



Errarte eta Abarrategi bikotea, azpitxapelkunak Udaberri Txapelketan

## Maiatz oparoa aurten ere

### Maiatzak 15, asteartea

\* 18:30: Hitzaldia "Larrialdi guztietan ospitalera? Nola jokatu egoera desberdinetan"

Hizlaria: Iñaki Agiriano medikua

Lekua: Jose Arana ikastola  
Antolatzailea: Almen Jose Arana ikastola

### Maiatzak 18, ostirala

22:30: "Yo los mate" antzezlan  
Belladona taldearekin

Lekua: Jose Arana ikastola  
Antolatzailea: Kultur Etxea

### Maiatzak 19, larunbata

17:30: Haurrentzako parkea:

Txirrista erraldoia, gazteluak, ludoteka eta tailerrak

Lekua: Luis Ezeizako patioa (eguraldi txarra eginez gero, pilotalekuan)

Antolatzailea.: Kultur Etxea

### Maiatzak 23, asteazkena

18:00: Umeentzako ipuin kontaketa

Lekua: Kultur Etxea

Antolatzailea: Kultur Etxea

### Maiatzak 26, larunbata

9:30: Mendi irteera

(Aitzorrotzera)

Aitzorrotzen bertan txistorrada goxoa partehartzaile guztientzako

Antolatzailea: Luis Ezeizako

Gurasoen Elkarte

## Erromesaldia Lourdesera

Eskoriatzako Parrokiak Lourdesera erromesaldia antolatu du Maiatzaren 26rako. Autobusak egun honetantxe irtengo du Eskoriatzatik goizeko 6etan, eta Lourdesen Donostiatik joango den Elizbarrutiko erromesaldiarekin elkartuko da. Joan nahi duzuenok, Maiatzaren 16 eta 18an izango duzue autobuserako txartelak erosteko aukera, beti ere Caritaseko egoitzan eta arratsaldeko 17etatik 18:30 arte. Txartelen salneurria 2500 pesetakoa da, eta joango zareten guztiok kontuan izan autobusa hartzeko orduan puntuala izatea komeni dela, Lourdesera garaiz iritsi eta gurutze bidean parte ahal izateko.



# RUBEN BEITIA

**Euskara irakastea gustuko egiten duen lana da eta gainera talde pribilegiatu bati irakasten ari da. Astean hiru egunetan hamahiru emakumerekin aritzen da euskaraz.**

**Zelan doa kurtsoa?**

Nahiz eta gauzarik oinarritzkoenak irakatsi, oso pozik nago taldeak eman duen erantzunarekin.

**Helduei euskaraz irakasteak ezberdintasunik ba al du?**

Erritmoa taldeak markatzen du. Kontuan izan behar da pertsona helduak direla eta gauzak ez dituztela hain errez hartzen. Idazteko eta irakurtzeko ohitura gutxi dute eta hori ere oztopoa da. Euren ere euren zailtasunak onartzen dituzte eta poliki baina aurrera goaz. dena dela talde giroa oso ona da.

**Aurrerapenik igarri duzu?**


Uste dut baietz. Hasi ginenetik, poliki bada ere, gauzak ikasi dituzte. Dena den, euren buruari ez diote gehiegi exijitzen.

**Kalean euskaraz egiten al dizute?**

Bai, saiatzen dira baina ez nirekin bakarrik, euren artean ere euskara erabiltzen ahalegintzen dira elkar animatzeko. Lagunek ere kuriositatez galdetzen diete klaseei buruz.

**Euskal Txokoko lokala egokia iruditzen al zaizu?**

Bai, ondo dago. Nik arbela asko



erabiltzen dut. Magnetofonia ez horrenbeste, nire ahotsa entzuten ohituta daude eta. Klase dinamikoa egiten dugu, ahal dela, hormetan kartelak ipini  Etxeko-lanik ez diet bidaltzen.

**Guztiak emakumeak izanda, nola moldatzen zara?**

Oso ondo. Bueno, batzutan gorritu beharra izaten dut  baina tira, ondo zaintzen naute.

**Piropo asko esaten al dizute ala? Zein izan da politena?**

Bai asko. Politena ? Bizarra kenduta natorrean guapoago nagoela, asko

maite nautela  Talde goxoa da.

**Aisialdian zer egiten duzu?**

Lagunekin egon, gauz atera, mendi buelta batzuk eman, noizbehinka idatzi eta holakoak.

**Irakasle ez bazina zein lanbidetan arituko zinateke?**

Galdera ona. Beste edozein lanbide baina dakidana irakasten eta besteei laguntzen.

**Datorren urtera begira taldeari zer eskatzen diozu?**

Gogo berarekin jarraitzea.



## SAN ANDRES SAKAMCHEM DE LOS POBRES: HERRI BATEN IZAERA

**Sarritan ikusi eta entzun ditugu azken urteotan Mexikoko Txiapas herriko gora beherak komunikabideetan: zapatistak herri euren egoeraren berri ematen, kanpotik joandako behatzaileak zapatistei segika, Txiapaseko herritarrak ongi etorria ematen... Seguru asko batek baino gehiagok pentsatuko du urrutidagoela indigenak bizi diren herrialde hori eta ez daukala gurekin inolako zerikusirik. Eskoriatzako udalak, ordea, bestelakoa pentsatu, eta ahal duen neurrian bere babesa eskaintzea erabaki zuen Txiapaseko San Andres Sakamchem de los Pobres herriari urtarrilaren 31an egindako osoko bilkuran.**

Mexikoko indigenak urte askoan bizi izan dira zapalduta eta inolako eskubiderik gabe: gobernuak zapalduta, lurren jabeek zapalduta... 1994. urtean euren independentzia, askatasuna eta demokrazia eskuratu nahian herri autonomoak eraikitzen hasi ziren. Herri autonomo hauek indigenen izaera eta ohiturak errespetatuko dituen eran antolatutako herriak dira besterik gabe. Txiapasen dauden 111 herrietatik 38 herri autonomo osatu ziren, horietako bat San Andres Sakamchem.

### Eskoriatzatik Txiapasera

Yurre urtero joaten da azaroa-abendua inguruan Txiapasera. Zazpi urte dira jadanik, eta aurten ere joango da. Bilbon egoitza nagusia duen plataforma baten bitartez joaten da. Plataforma honek esaten dio Txiapaseko zein alderditan behar duten bere laguntza eta zazpi urte hauetan herri askotatik pasatu da.

Iaz Mundukide taldearen bitartez Ertamerika eta Hego Ameriketako hainbat lagun izan ziren gurean bisitan. Horietako bat Txiapaseko San Andres herrikoa zen. Yurren bitartez Eskoriatzako alkatearekin harremanetan jarri zen lagun hau eta bertako egoera azaldu zion. Udalaren izenean oroigarri bat eta diru laguntza eraman zituen orduan Txiapasera. Orain, berriz, San Andres de Sakamchemek

bere herri autonomo izaera aldarrikatzen du, eta euren kultura eta ohituren arabera bizitzeko eskubidea. Urtarrilaren 31an egindako osoko bilkuran Eskoriatzako udalbatzak eskaera hau onartzea erabaki zuen.

### San Andres Sakamchem de los Pobres

San Andres herria "Altos de Txiapas" deritzon lurraldean dago, itsasaren mailatik 2.500 metro ingurura. San Andres Sakamchem de los Pobresek 11 mila biztanle inguru ditu, gehienak basoan zehar sakabanatutako auzoetan eta txotxil leinukoak dira. Pobre baina duintasunez bizi dira Yurreren esanetan, horregatik kanpotik doan jendea hasieran mesfidantaz hartzen dute. Herri autonomo honek bere funtzionatzeko







era dauka, bertako agintari eta arduradunen bitartez eta ez dute ez gobernuak ez kanpotik doazenek bestelakorik inposatu nahi.

1995ean Txiapaseko herrietako arduradunak aukeratzeko hauteskundeak egin ziren. San Andres herriko %80ak, ordea, herri autonomia izatea eta arduradunak indigenen ohituren arabera aukeratzea erabaki zuen. Herriko kontseilu autonomoak 13 ordezkari ditu, 31 tradiziozko agintari eta 2 tradiziozko epaile. Kontseilu horren lanik garrantzitsuena indiar ohiturak nola mantendu eta zeintzuk komeni diren aldatzea aztertu eta erabakitzea da.

Yurre, Txiapasera egindako azkenengo bisitan, San Andres Sakamchem herritik pasatu zen. Eskoriatzatik zihoala jakitean pozik hartu zuten eta herriko agintariekin solasalditxo izan zuen. Eskoriatzatik bidalitako oroigarria ere bertan zeukaten. Agintariez gain herriko gizonak ere egon ziren solasalditxo horretan. Yurren esanetan, agintariekin hitzegi bitartean beste gizon guztiak lotan gelditu ziren, nonbait aspertuta, izan ere askok ez baitakite gazteleraz. Hala eta guztiz ez pentsa inor lotsatu zenik, ez agintariak, ezta lo gelditu zirenak ere.

#### Pobre baina duintasunez

Sarritan mexikarra nagia dela esaten da. Yurrek, ordea, Txiapaseko

jendea oso langilea dela dio. "Goizeko 5etan jaiki eta lanean hasten dira. Emakumeak ere astoak bezala ibiltzen dira zama bizkarrean hartuta". Kanpotik doan laguntza gustura hartzen dute baina ez dute inork ezer indarrez ezartzerik nahi, bertako ohiturak berreskuratu nahi baitituzte. "Sarritan erakundeen bitartez baino hobe da norberak zuzenean dirua eramatea" dio Yurrek. Behin baino gehiagotan egin du hori eskoriatzar honek, eta ondoren zertan erabili duten diru hori ere ikusi izan du: behiak erosteko... "Azkenengo aldiz dirua eraman nuenean, Eskoriatza eta Aretxabaletako herritarrek emandakoa, festa egin zuten gure izenean,

hainbat kandela piztu eta desiorik onenak bidali zizkiguten".

Kanpotarrak Txiapasen egon nahi izatearen beste arrazoi bat gobernuaren bidegabekeria eta indarkeriaren testigu izatea da.

#### Herri baten izaera

Ertamerika eta Hego Ameriketako herriei laguntzeko eskaera egiten denean, diru eskaera izaten da gehienetan. Oraingoan, ordea, dirua baino norberaren ohitura eta izaera mantenduz herri izateko eskubidea onartzea eskatzen dute. Mexikok, indigenak euren ohituren arabera bizitzeko duten eskubidea onartu zuen hitzarmen baten bitartez. 1998an, ordea, Txiapasen sortutako 38 herri autonomo horien kontra azaldu zen Mexikoko gobernu eta bortizki erasotu zituen indiarrek. Legez kanpoko izendatu ditu herri hauek eta etsai okerrenean bihurtu dira. Horrek beldurra sortarazi badu ere Txiapaseko herritarrengan, asko erahil baitituzte polizia eta militarrek, herriarentzat lanean jarraitu nahi dute euren bizitzeko era mantenduz. Eskoriatzako udala San Andres de Sakamchem herriarekin bat egin da honek autonomia izateko duen eskubidea onartuz. Onarpen sinbolikoa da baina hortik hasi behar urruti heldu nahi bada. Azken batean ez al du Euskal Herriak ere gauza bera eskatzen?





## LEIRE URZELAI: INJENIARI BATEN ABENTURAK SUITZAN

Hogeita bi urte zituen Leire Urzelaik 98ko Irailaren erdialdean Suitzarantz eramango zuen hegazkina hartu zuenean. Ordura arteko ikasketa guztiak bailaran eginda, eta Informatikako Injenaritzaren teknikoko titulu atera berria besapean zuela "saltoa" emateko ordua iritsia zen, eta gogoa eta beldurraren arteko sentsazio batekin eman zuen salto hura, Alpe mendien magalean, Lemán lakuaren ertzean dagoen Lausanna hirira heltzeko. Ia hiru urteren ondoren, eta Aste Santutan zehar Eskoriatzara egin duen bisita aprobetxatuz, kafe pare baten inguruan hizketaldi luzea izan dugu Leirerekin, gure herri honetatik Lausanna bezalako hiri batera bizitzera eta ikastera joateak suposatzen dionaz hitz egiteko. Hona hemen kontatu digunaren laburpentxoak.



Leire, Naiara eta Veronique Neuchâtelan

Lausanna edo beste toki baten artean aukeratu izan ez zuen arren itxuraz hiri tiki eta polita aurkitu zuen Leirek bertara heldu zenean; ez zen eskutsik heldu, urtebete lehenagotik frantseseko ikastaro intentsibo batean aritua zen, eta aireportuan ere hirian bere txokoa aurkitzen lagunduko zioten lagunak zain zituen. Agian arrazoi horregatik ezaguna izango ez den arren, sekulako ikasle bizitza omen dago Lausannan, eta Leirek bezela bere ikasketak Arrasateko Eskola Politeknikoan egin eta GOIER

Programa aprobetxatzen duten ikasleak urtero joaten dira bertara, beren ikasketak osatzeko asmoz. Aldi baterako Ander izeneko oñatiar batekin batera sartu zen pisu batean, eta halaxe hasi zituen bere lehen ikasketak Lausannako Eskola Politekniko Federalean. Arrasateko ikasleez aparte, beste hainbat tokitatik heldutako ikasleak eta hiriko kaleetan egunero ematen den kultura, arraza eta koloreen nahasketak guztiz apurtu zuen Leirek Suitzari buruz zuen haserako ideia hura. Aurkituko zuela espero zuen hiri

europar serioa ez zen berak espero zuena, eta gainera, pixkanaka ezagutzen hasi zen hiriak eta bizitzeko erak atsegina ematen zuen.

Suitza hiru kantonamendu ezberdinetan zatituta dago, biztanleen hizkuntzen arabera erraz ezberdindu daitezkeenak; hiru dira bertako hizkuntza ofizialak, alemaniera, frantsesa eta italiara, eta hortaz aparte, beste bi hizkuntza propio ere badituzte, suitzar-alemana eta italiara eta alemanaren arteko beste nahasketak bat. Hiru Legebiltzar ezberdin daude





Leire Chilloneko gazteluan

eta jendearen eguneroko bizitzari zuzenean eragiten dioten hainbat erabaki politiko referendum bidez onartzen dute bertako biztanleek: etorkinei buruzko legedia, drogen legalizazioa edo eta zenbait autobide egin edo ez horrela erabaki da, adibidez. Haserako inpresio batean bizitzak garestia ematen du, garestia da tabernaz-taberna ibiltzea, etxetik kanpo afaltzera joatea edo eta etxebizitza bat erostea, baina

L e m a n lakuaren ertzean dago Lausanna, Ginebratik nahiko gertu, lakuak berak egiten du muga Frantzia eta Suitzaren artean, eta kilometro gutxitara daude Alpe mendien

suitzarren bizitza mota oso ezberdina da baita; soldata artuak dituzte, eta gainera jendeak ez du "propiedade" sentimenturik; oso gutxi dira beren etxe propioa dutenak, eta jendea asko mugitzen da lana edo eta beste edozein arrazoi bitarteko dela.

## LAUSANNA, ALPE ONDOKO HIRI TXUKUNA

lehenengo tontorrak. Leirek esan digunez oso polita da Lausanna hiri bezala, eta oso ondo zainduta daude kale, eraikuntza eta berdeguneak. Lehen hilabetea Anderrekin batera pasatu ondoren, hiriko erdigunetik pixka bat urrutirago zegoen ikasle erresidentzia batera aldatu zuen bizilekua Leirek. Bertan ere ez zen denbora asko eman, hiriko bizitzatik gerturago egon asmoz, hiru ikaskide euskaldun eta beste suitzar batekin batera pisu bat alokatu baitzuten lau hilabete beranduago; eta hortxe dago geroztik. Zijoan tokiari buruzko imajina apurtu ondoren, jendeari buruzkoa ere aldatzen joan zen ere; orain batera dudarik gabe esaten du



Gruyer herria




Leman lakua eta Alpeak

bertako jendea ez dela imajinatzen dugun bezain hotza; etorkinen etorrera bizi izan duen bigarren belaunaldiko jendea, gazteak, inolako konplexurik gabe nahasten da bere arrazakoa ez den jendearekin, eta taberna politak eta giro oso ona omen dago.

(Jarraituko du)



**EUSKADIKO GATAZKARI IRTENBIDEA AURKITUKO AL ZAIO HAUTESKUNDE EGUNAREN ONDOREN?**



**BENTURA ISASMENDI**  
(Jubilatua)

Orain zarata ugari entzuten da batean eta bestean, baina nik azkenean gauzak konponduko direla uste dut, esperantza badut behintzat.



**MANUEL RAMOS**  
(Jubilatua)

Gauzak dauden moduan egonda, zail ikusten dut. Hala izatea nahiko nuke, eta egoera konpontzea, baina zail ikusten dut.



**DORLETA ETA TXARO ARKAUZ (Langileak) :**

Dorleta: Nik badut itxaropena, baina hori lehendakari nor gelditzen denaren arabera izango da.

Txaro: Nik ez dut esperantza handirik, gauza oso serio dago.



**SANTIAGO TOSTON(Langilea):**

Nik zaila ikusten dut, egoera nola dagoen ikusita. Horretarako harreman gehiago egon beharko litzateke alderdien artean, elkarrizketa gehiago.



## Eleizdoinuak bai? Eleizdoinuak ez?...

Benoa, kendu digute Aste Santutik hona elizako kanpandoretik gozo-gozo isurtzen zitzaigun doinuak, bere magalean biltzen gintuen melodia. Eta ez da ostera be jarri digutena -lehenagotik ere bageneukana, porzierto-atsegin ez dudala, baina zer esango dizuet, hilabete-erdi inguru gozatzeko pribilegioa eduki dugun salmodia derbitxe moduko beste hark bazuen oraingoak ez daukan ez-dakit-nola-esan-zereko-zerbait.

Gogoan dut nola lehenbizikoan nahiko modu espasmodikoan esnatu ninduen, alaruaaren indarrak, nonbait. Gerora, 9-12-21, ohituaz joan nintzen, eta banekien ordu seinatu horietako kanpai-andana entzun eta gero, ahots sakon batek Afrika musulmandarrera, irudipenean ez bada ere, eramango ninduela, garraiatuko ninduela bere gora beheraren hegaletan: a-a-le-e-lu-u-u-i-iaaaaaa.

Hasieran, haize txar batek hartutako seroraren bat izango ete zen sospetxatu nuen, baina, ez, gizakume ahotsa zirudien itxuraz Mekara begira orazioa egitera dei egiten zigunak. "Islamera bihurtu ete zaigu Xabier parrokoa?" galdegiten nion neure buruari. "Zein izen erabiliko du aurrerantzean, Perez aiatolah, akaso?", "Aleluiaka ala Ala da jainkoa-ka ote dabil minarete bihurtutako dorretik txilioka dabilena?" esaten nion neure neuronari entzuten nueneko. Hau duk hau, mutil; lehendik ez zen gutxi euskal eliza katolikoaren larregiko epeltasunarekin eta neurritz kanpoko oreka nahiarekin geneukana, eta orain ez du, bada, zisma berri baten lehen urratsa eman!

Baina, orduak eta elizkizunak iragartzeaz aparte beste zerbaiterako erabili gura bada kanpandorea, zergatik ez, adibidez, gurean diren "sentsibilitate" guztien bozgorailu gisa erabiltzeko? Denei denbora-tarte eta jardunaren errepikaldi-kopuru berbera emanaz, gainera, eta ez udaletxeko jarlekuetarako lehian ateratako botoen arabera. Besteena ere entzunaz, agian, elkar ulertzen eta konpontzen hasiko ginatke. Edo, bestela, Villagarcia de Arousako gaita-banda jota-fuego bertatik muñeiraka jartzeko. Txarto, ala? Inoiz baino literalago, gainera, Kristoren ambientea!

Neuk hala nahi izan dudalako, Elizatik urrun bizi naiz. Patuaren halabeharrez elizatik oso gertu bizi naiz ostera. Lehenak bakea eta sosegua dakarkio nire izpirituari. Bigarrenak berriz ustekabeak eta sustoak besterik ez nire bodixari. Azkena, pasa den astesantuko oporetatik bueltan.

Iratzartze kuriosua izan nuen. Espazio-denboran 10 urteko bidaia egin eta Ishtanbulen sentitu nintzen instant batez. Baina ez, ohea etxekoa zen eta leihotik Kurtzeberri txuri-txuri ikusten nuen. Gerora jakin izan dut ululu hareik on Xabier gure parroko prestuak integrismoranzko bidean burutu berri duen esperimendua besterik ez zirela. Zer da bada bestela fede konkretu baten agintari-zuzendariak jotzen duten erritmoan herri osoa dantzan jartzea? Integrismoa. Nazional katolizismoa joan den mendeko urterik beltzeenetan galdua zegoela uste bagenuen ere, ematen digu bai -noizbehinka eta eraldatuta bada ere gero eta sarriago- bizirik dirauenaren seinale. Gizartean izan zuen tokia berreskuratzeko prest dagoela erakutsiz gainera.

Guzti honi bueltaka ari naizela Ishtanbulen egin genuen lagun batek esan ziguna datorkit burura. "Muezinak minaretetik botatzen duen kantu berak bi esan nahi dauko. Bata bertokoentzako, otoiortz ordua adierazten duena; bestea kanpotarrentzako, non zabilzaten gogorarazteko eta, bide batez, adi ibil zaitezten abixua da. Eta kontuan izan atzetik dugun Historia odoltsuan abixutik mehatxura urrats txiki bat besterik ez dagoela".

On Xabierrena ere abixua ote denaren beldur naiz. Datozen garaien abixua: Erreala eta Club Atlético La Salud bigarren mailara, Burgosko bat eskuz banakako pilota txapelketan nagusi, Mayor Oreja lehendakari, ... eta Eibarko sozialista zaharrek esaten zutena "Banda Munizipala pordelante eta pueblo soberanua pordetras" baina Maiatzaren Leheneko manifestazioan izan beharrean deogratias-ko prozesino baten herriko jaietan. Abixua ala mehatxua??.

### jone eta jojo

ZE BARRIren atal hau, garaiei egokituz, interaktiboa egin nahi izan dugu. Dakizuen moduan, atal honetan Jonek eta Jojok gai jakin bati buruzko eritzi kontrajarriak botatzen dituzte... Baina orain zuek, irakurle guztiak ere, zuen keja, iradikizun, protesta, animo, irain, piropo edo dena-delakoak Jone eta Jojori helarazi diezazkiezue.

E-mail bat bidali ondorengo helbide elektronikora, bertan nahi duzuen hori garbi jarriaz:

[jojone@euskalerrria.org](mailto:jojone@euskalerrria.org)



## TXARTELAK

\* Nazioarteko Gazte, Ikasle edo Aterpetxe Txartela eskuratzeko aukera izango duzu hemendik aurrera Arrasateko Gazte Bulegoan.

## DIRULAGUNTZAK

\* Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat dirulaguntza antolatu du:

- musika, dantza eta antzerkia arloetan espezializazio ikasketak egiteko dirulaguntzak. Epea: maiatzak 15.

- ikus arteetako eta literatur sorkuntza arloetako bekak eta sustapen laguntzak. Epea: maiatzak 15.

- "Nikanor Zabaleta" musika bekak. Epea: maiatzak 15.

\* "La Caixa"k Frantzia, Alemania, Britainia Handia, Estatu Batuak, Kanada eta Japonen gradu ondoko edo doktoretza ondoko ikasketak osatzeko laguntzak, lizentziatuei zuzenduta. Epea: martxoak 30, maiatzak 15 eta ekainak 29.

\* Guggenheimen praktikak egiteko aukera. Unibertsitate ikasleei zuzenduta. Praktikak, Bisitarekiko arreta, Argitalpen, hezkuntza, plangintza eta antolaketa, Programazioa eta ikerketa, Informatika sareen zuzendariodetzan egingo dira. Epea: maiatzaren 16.

\* Atzerrian aleman, fantzes eta ingeles ikastaroak egiteko dirulaguntzak. DBH 2.maila, batxilergoa edo goi mailako heziketa zikloen ikasleei zuzenduta. Gehienez 19 urte beteta izan eta ikasturtean zehar beken deialdi orokorreko bekaduna izatea. Epea: maiatzak 20.

\* Leonardo da Vinci europar programa. Europako enpresatan praktikak egiteko aukera. Ikasketak bukatu berriak izanik, lan esperientziarik ez duten pertsoneri zuzenduta. Epea: ekainak 15.

## LANA

\* Bergarako Udalerako enplegu

dinamizatzailea behar da. Epea: maiatzak 14.

## IKASTAROAK

\* Arrasateko INEMek hainbat ikastaro antolatu du: geriatría laguntzailea, soldadura, diseinu grafikoa, internet hastapena...

## LEHIAKETAK

\* Kultura Sailak, San Juan jaiak iragartzeko Kartel lehiaketa. Formato bertikala, neurriak 50 x 70 zm. Derrigorrezko testua: "2001 San Juan Jaiak Arrasate". Epea: maiatzak 25.

\* Emakume Sailak antolatuta, Komiki ez sexisten IV. Lehiaketa. Formato bertikala, 2-4 orri bitarteko luzera, txuri-beltza edo koloretan, euskaraz nahiz gazteleraz. Epea: uztailak 20.

\* Zumarraga-Urretxuko udalak argazki lehiaketa antolatu du. Gaia eta teknika libre, zuri-beltzean edo koloretan. Epea: irailak 7.

\* Urretxu-Zumarragako pintura lehiaketa. Lanaren gaia eta egiteko modua egilearen aukeran. Epea: irailak 7.

\* Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak antolatuta, XII. Argazki Lehiaketa. "Gazteen ekimenak", gaitzat hartuta. Zuri-beltzean edo koloretan, gehienez 3 argazki. Epea: urriak 11.

## AUZOLANDEGIAK

\* Gazte-Kutxak uztaila, abuztua eta irailerako auzolandegiak antolatu ditu Gipuzkoako hainbat herritan 16-29 urte bitartekoentzat. Epea: maiatzak 31.

\* SCI Madrilgo elkarteak mundu osoan burutuko diren auzolandegiak antolatzen ditu. Epea: maiatzak 1etik aurrera, plazak bete arte.

## UDAKO IKASTAROAK


\* Udako Ikastaroak EHU-UPVk antolatuta, arlo ezberdinetan ekainean hasi eta iraila bitartean burutuko diren jardunaldi, ikastaro, mintegi, e.a... Epea: maiatzaren 7an hasi eta matrikula

kopurua arte.

## LAN BRIGADAK

\* Urtero lez, Askapena eta Komite Internazionalistak udarako lan brigadak antolatu dituzte. Kuba, Mexiko, Txiapas, Venezuelan... lan egiteko aukera.

\* "José Martí" Euskadi-Cuba Elkarteak, urtero lez Cuban lan brigadak antolatu ditu, uztailan zehar lur landetan lan egiteko.



## ESKORIATZA

Udaletxea .....	943-714407
Udal Bulegoak .....	943-714532
Udalzaingoa .....	943-714407
Euskaltegia .....	943-792168
Kultur-Etxea .....	943-714688
Gizarte-Laguntzailea ...	943-713136
Kiroletxea .....	943-715328
Liburutegia .....	943-713135
Luis Eceiza .....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen .....	943-714964
Museo-Eskola .....	943-715453
<b>Ze Barri?</b> .....	<b>943-715434</b>
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola .....	943-714157
Osakidetzeta .....	943-714452
Telesko .....	943-714917
Taxia .....	943-714059

## BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara)	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga) .....	943-721515
Renfe (Gasteiz) .....	945 232030
Pesa (Arrasate) .....	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak .....	112



NAZIO ASKE BAT JAIOTZERA DOA

# euskal herria



BOZKATU







# *Ibarretxe da baietza*



eusko  
alkartasuna



eman botoa

**EUZKO ABERTZALEAK**